

## POEMA ESKIZOFRENIKOA

Nagore Amondarain

*Arantzazu, 17 urte*

Lili usaindun albiste bat utzi zuen  
telebistako partidu traszendental batengatik.  
Tripa zuloa asetu,  
eserleku propioan eseri  
eta  
aparailuari so.  
Egongelako aparailuak  
pareta heze osoa estaltzen zuen  
—ez pentsa handia zelako  
etxea txikiegia zelako baizik—,  
apatiko honen kontzientziak  
oraindik  
beharresten zituen hiru printzipio;  
jatea,  
whiskyaren hiztegia  
eta denbora itzaliz egiten diren  
glukosazko jolas esporadikoak.

Emaztea, aldiz, formalegia zuen,  
goiza zaunkaka hasi orduko  
iratzarri  
eta eginkizun oparo  
ezin ohoretsuagoak  
burutzeari buru-belarri.

Oso lilura eskasekoa zen  
apatikoaren joera,

egunero  
telebistari begira  
garagardo lata eskuan,  
gudarosteek frentean  
zaintzeko egiten dituzten antzera,  
hojalatazko muinoak narotasunez sendotzen.

Seme eskizofrenikoa  
mihiari frenua jarri nahian  
eta eskuineko eskua luzaturik,  
isiltzeko aukera abandonatua ematen zion  
aita apatikoak belarrondoko batez.

Behintzat historia  
ondo bukatu zen,  
izpar egoki batez;  
aita apatikoa  
sabai hezetik zintzilika zeuden  
estalaktita batek  
buru hezurra perforatuz hila kausitu zen.